

Babes publikoko etxebizitza – Betekizunak

Diru-sarrerak

Babes publikoko etxebizitzaren esleipendunak diren pertsonak edo bizikidetzaren unitateek gutxieneko batzuen eta gehieneko batzuen arteko diru-sarrerak batzuk eduki behar dituzte, ondorengo koadroaren arabera.

Kontuan hartu behar da kontratuaren titularrak izango diren familia-unitateko kide guztien diru-sarrerak zenbatuko direla. Adibidez, senar-emazte batzuen kasuan, biek kontratuaren nahitaezko titularrak izan behar dutenez gero, bikotea osatzen duten bi pertsonen diru-sarrerak batu beharko dira.

GUTXIENEO DIRU-SARRERAK:

KASU OROKORRA	KASU BEREZIAK (*)
9.000 €	0 €

(*) Mugikortasun urriko pertsonentzat, adimen edo garapen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala edo genero-indarkeria jasaten dutenentzat izango dira. Pertsona haiek ez dute gutxieneko diru-sarrerarik egiaztatu behar.

Mugikortasun murriztua dute:

- Minusbaliotasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskineko D) eta H) idatz-zatien artean 7 puntu edo,
- gehiago edo A edo B letra dituztenak, edo 888/2022 Errege Dekretuaren arabera mugikortasunaren arloko jardueraren mailako mugapen baremoan (MJMB) % 25 edo gehiago dutenak.

GEHIENEO DIRU-SARRERAK:

Gehieneko diru-sarrerak familiako kideen eta diru-sarrera guztien gutxienez % 20ko ekarpena egiten duten pertsonen kopuruaren arabera haztatzen dira.

FAMILIA- UNITATEKO KIDEAK	ARAUBIDE OROKORREKO BOE-AK			BOE SOZIALAK		
	DIRU-SARREREN HARTZAILEEN KOPURUA			DIRU-SARREREN HARTZAILEEN KOPURUA		
	HARTZAILE 1	2 HARTZAILE	3 HARTZAILE edo gehiago	HARTZAILE 1	2 HARTZAILE	3 HARTZAILE edo gehiago
KIDE 1	46.463,29	---	---	29.784,55	---	---
2 KIDE	48.908,73	54.343,03	---	31.352,16	34.835,73	36.884,89
3 KIDE	51.625,88	57.362,09	60.736,33	33.093,95	36.771,05	38.934,05
4 KIDE	54.662,70	60.736,33	64.309,06	35.040,65	38.934,05	41.224,29
5 KIDE	61.951,06	68.834,51	72.883,60	39.712,74	44.125,26	46.720,87
6 KIDE	71.481,99	79.424,43	84.096,46	45.822,39	50.913,76	53.908,69
7 KIDE	84.478,71	93.865,24	99.386,72	54.153,73	60.170,81	63.710,27

DOKUMENTAZIOA:

Funtsean, ez da beharrezkoa diru-sarrerari buruzko dokumentazioa aurkeztea. Beharrezkoa izanez gero, eskatu egingo da.

- Honako kasu hauetan baino ez da beharrezkoa izango justifikazio-dokumentazioa:
- Zergak Gipuzkoatik kanpo ordaintzen badituzte: PFEZaren aitortpena.

Nolanahi ere, ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak edo antzeko diru-sarrerak jasotzen badira (sorospenak, bekak eta abar), haien ziurtagiria aurkeztu beharko da.